

ZAINZA EKOSISTEMA
PUBLIKO-KOMUNITARIOAK
INDARTZEN

[PROZESUAREN MEMORIA]

Talde teknikoa

HIRITIK AT

PAREAN
Elkartea

Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
Deusto

Parte hartzen duten erakundeak

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 OIARTZUNGO
UDALA


Errenteriako Udala

TOLOSA 

Finantziazioa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

AURKBIDEA

1. TESTUINGURUA.....	6
2. HELBURUAK.....	8
3. AZTERKETA	10
4. AZTEREKETAREN EMAITZAK	14
5. ZAINZA LABORATEGIAK.....	18
6. PROIEKTU PILOTOA.....	24
7. JARDUNALDIAK	28
8. EMAITZAK	32

1. TESTUINGURUA

Covid19-aren iritsierak gure lurraldea egoera berri baten aurrean jarri du. Osasunari loturiko krisi batek, gure jendartearen ziurtasun asko jarri ditu dantzan. Horrelako danbatekoa inork gutxik aurre-ikustea zaila izanda ere, jendarte bezala, eta zenbait eremutan mugak ditugula erakutsi digu. Mugak, edo bederen, egokitzapen azkarrak egin ahal izateko, nahikoa ez den erresilientzia gaitasuna. Eta hau, munduaren inter-konexio sakonen garaian, "historiaren azkartze" testuinguruan, zaugarritasun sozial sintoma izan daiteke.

Honi loturik, proiektu hau gure aburuz estrategiko bezain presazko den eremu batean kokatzen da: Zaintzarena. Sakonduko dugun gisara, Zaintza hizki larriz aipatzean, jendarte batek dituen baldintza estrukturalaz ariko gara, eta horiek mantentzeko gaitasun

sistemikoaz. Ze gaitasun? Pertsona bezala duin zaindu eta zaindua izan ahal izateko ezaugarriaz. Menpekotasun egoerak medio zaindua izateko beharra agerikoagoa izan daiteke, baina ezin dugu ahaztu denak garela elkar-menpeko, denok behar dugu zainduak izan. Tamaina ezberdinean denok eraikitzen ditugu erlazio sozial sakonak zaintzaren bidez, lotura estuak zaintzaren bidez. Hortaz jendarte elkar-menpekotasun horren nolakotasunaren gainean mantentzen da, eta horregatik, ezaugarri hori (zaintza), ongizatea, kohesio soziala eta giza garapenerako dimentsio estrategikoa da.

Proiektu hau, krisiak suposatu duen talkatik, eman diren erantzun publiko eta komunitarioetatik ikasi, eta zaintza ekosistema dentsuagoak artikulatzeko bideak proposatzera dator.

Zentzu honetan burutzen ari den prozesua 4 fase nagusitan banatzen da:

- > Azterketa fasea
- > Proiektu pilotoen diseinu eta inplementazioa
- > Esperientziak elkar-trukatzeko jardunaldiak
- > Elkarlan publiko-komunitarioa sustatzeko gida-liburua

Prozesu hau 4 udalerrietako Udaletxe eta eragileekin burutzen ari da herriz herriko ezaugarriak kontutan hartuta eta intentsitate maila desberdinetan:

- > Oiartzun
- > Errenteria
- > Tolosa
- > Donostia

Ondoren azalduko dugu orain arte burututako lana eta jasotako emaitzak zein hurrengo faseen aurreikuspena eta proposatzen diren zereginak.

2. HELBURUAK

2.1. HELBURU OROKORRAK

- Covid19ak sortu duen zaintza erronka berrituari erantzuteko ekarpena egin
- Erronka honi begira gobernu partekatu esperientziak sortu eta egonkortu
- Tokian toki, auzoz auzo ehun komunitarioan oinarrituriko zaintza sistemak indartu
- Ehun komunitarioaren eta eremu publikoaren arteko sinergiak bilatu
- Zaintzari dagozkion gertuko politika publikoen gainean hausnartu eta esperimentaziotik gomendioak sortu
- Zaintza duinaren eztabaida eta korapiloari ekarpen baikor bat egin
- Modu duin batean zaindu eta zainduak izan ahal izateko bide luzean ekarpen bat egin

2.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Covid19-ak sortu dituen ez ohiko zaintza beharrei nola erantzun zaien ulertu: Nondik (publiko/komunitario), nola, ze tresna eta aurre baldintza eta eduki duten inpaktua ezagutu
- Sortu den zaintza ehun publiko/komunitario dentso hori interpelatu eta estrategia konpartituak diseinatu eta horretarako tresnak eskaini
- Zaintza ekosistemak indartu, gobernantza eredu partekatu baten baitan (publiko/komunitarioa) eta lurraldetua (udalerrri/auzoetan intzidentzia izango duena)
- Zaintza krisiari erantzunez sortu den bat bateko erantzun masiboa, egonkortu eta zaintza planaren baitan iraunkortasuna emango dion estrategia diseinatu

3. AZTERKETA

3.1. METODOLOGIA

Burutu den azterketa metodologia kualitatiboetan oinarritzen da, konkretuki elkarrizketak eta eztabaida taldeak burutu dira.

Hauek herrika antolatu dira eta Udalerri bakoitzean, Udaleko zinegotzi edota teknikariek, zaintza sareetako partaideekin eta 3. sektoreko erakundeetako ordezkariekin izan gara.

Kasu guztietan, burutu den lehen saioa Udal bakoitzeko arduradun batekin izan da, informazioa jasotzeko zein hurrengo elkarrizketak planteatzeko.

3.2. PARTE HARTZAILEAK

Herria	Partaideak	Erabilitako metodologia
Oiartzun	Udal zinegotziak Eneritz Arbelaitz – Alkate-ordea Olaia Lasa – Zinegotzia – Ongizate saila	Eztabaida taldea
	Zaintza sarea Nekane Martiarena	Elkarrizketa
	Udal teknikariak Myriam Goikoetxea – Gizarte Zerbitzuetako burua Maitane Iribar – Berdintasun teknikaria	Eztabaida taldea
	Herri mugimendu eta 3. sektoreko eragileak	Eztabaida taldea
Tolosa	Udal arduradunak Olatz Peón – Alkatea Garikoitz Lekuona – Komunitatea eta Gobenantza teknikaria Ainara Irazusta – Gizarte zerbitzuetako burua Vanessa Juez – Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Eztabaida taldea
	Udal tenikariak Agurtza Zubero – Berdintasun teknikaria Nerea Cereceda – Zaintza teknikaria Ana Telleria – Migrazio teknikaria	Eztabaida taldea

	Tolosa Auzolanean	Eztabaida taldea
	3. sektoreko eragileak Adinkide	Harremana- Elkarrizketak
Donostia	Donostia Lagunkoia Eva Salaberria	Elkarrizketa
	Udal teknikariak Amaia Agirreolea – Partaidetza teknikaria Ana Txurruka – Berdintasun teknikaria Garikoitz Agote – Gizarte ekintza Sorkunde Jaca – Osasun sustapena	Eztabaida taldea
	Zaintza sareak Oier Ibarguren– Amarako zaintza sarea Garbiñe Alkiza – Intxaurrendoko zaintza sarea	Elkarrizketa
Errenteria	Udal teknikaria Mikel Goñi – Partaidetza eta komunikazio teknikaria	Elkarrizketa

4. AZTERKETAREN EMAITZAK

Azterketaren memoria garatzen ari bada ere, ondoren aurkezten ditugu modu laburtuan Azterketa fasean jasotako emaitza nagusiak.

Hauek modu orokorrean jaso ditugu lehenik eta behin, herri guztietan jasotako ondorio amankomunak azpimarratzeko.

Bestetik, herriz herriko sare eta elkarlan publiko-komunitarioaren ezaugarri nagusiak bildu ditugu.

4.1 HERRIZ HERRIKO EMAITZAK

	Izaera	Gobernantza	Funtzionamendua	Burututako ekintzak	Konfinamenduaren ondorengo egoera
TOLOSA	Sare komunitarioa	Koordinazio gunea: Udala, sareak eta 3. sektorea	Sareak bolondresen koordinazioa Udalak beharren identifikazioa eta 3. sektoreko eragileen bitartez zerbitzu eskaintza	Ordenagailuak eta konexioa ikasleei zihurtatu Gurutze Gorriaren bitartez erosketak	Hainbat eragileetan inplikatu dira bolondresak eta zenbait proiektu martxan dituzte.
OIARTZUN	Sare komunitarioa	Udal zinegotzien parte hartzea sarea Koordinazio informala baina estua eta naturala	Udalak zenbait zerbitzu bertatik eskaintzeko planteamendua egin zuen. Jarduera propioa izan zuen hainbat alorretan.	Erosketak, etxeko lanen laguntza Kultur eta kirol jarduerak Genero indarkeriaren aurkako kanpainen zabalpena	Sare bezala ez dago funtzionamenduan baina saretik eratorritako ekimen kulturalak antolatu zituzten udan.
DONOSTIA	Auzokako sare komunitarioak	Sare bakoitzarekin koordinazioa eta sareen koordinatzailearekin elkarlana	Udalak sareetara bideratu ditu zenbait eskaera, sareekin harremanetan jartzeko bideak zabalduz	Erosketak Euskara mintzalagunak ...	Mantendu dira aktibitate gabe.
ERREENTERIA	Sare publikoa			Dei telefonikoak	Sarea berraktibatzeke deialdia egin da.

4.2 ONDORIO NAGUSIAK

> Elkarlan publiko-komunitarioa modu desberdinetan antolatuta

Herri bakoitzeko ezaugarrien arabera antolatu dira zaintza sareak eta erakunde publikoarekiko elkarlana eta koordinazioa. Besteak beste zerikusia izan duten faktoreak hauek izan dira: herriaren tamaina, herri mugimendu eta Udalaren arteko aurretiko lotura, herri mugimenduaren aurretiko bizitasuna.

> Zaintza sareen martxan jartzea azkarra, motibazio politiko-komunitarioa

Aldez aurretik existitzen zen ehun komunitarioa baliatu zen sareak martxan jartzeko. Oso prozesu azkarra izan zen, motibazio politiko eta komunitarioa izan zen. Bolondresen aldetik aniztasun handia izan da.

> Zaintzaren gaiak hartutako zentralitatea

Agenda feministatik sustatutako mezua jendarte osoan zentralitatea hartu zuen eta gaia modu teorikoan zein praktikoan erdigunean jarri zen.

> Momentu konkretu batean sortutako egoerari aurre egiteko fenomeno

Konfinamenduan bizitako baldintza bereziak (behar zein denbora eskaintzeko aldetik) sareen sorrera markatzen dute. Konfinamenduaren amaierarekin batera, sareen dinamikaren apaltzea nabarmena da.

> Kasu guztietan, sareak apaldu badira ere, zerbait gelditu da

Apaltze hori eman bada ere, bertatik eratorritako praktika eta proiektu desberdinak gelditu dira.

> Kasu guztietan bolondres gehiago eskaerak baino

Nabarmena da bolondres bezala izena eman zuten guztiek ez zutela parte hartu jarduera konkretu batean. Norberaren zaintzarako laguntza beharrezkoa dugula onartzea eta eskatzea ariketa erraza ez dela ikusi da.

5. ZAINZA LABORATEGIAK

Zaintzaren inguruko politika publikoen eta elkarlan publiko-komunitarioaren inguruan hausnartzeko Zaintza Laborategiak deitu ditugun guneak sortu ditugu:

- **Udalen arteko laborategiak:** 4 udalerrietako zinegotzi eta teknikariek parte hartu dute hausnarketa saio eta jardunalidetan.
- **Donostiako auzo laborategiak:** Gros eta Bidebieta-Herrera auzoetan erakunde publiko eta hainbat erakunde zein elkartetako kideek e eta herritarrek parte hartu dute.

5.1 UDAL LABORATEGIAK

> Prozesua

Proiektuaren baitan, parte hartu duten udaletako profesional eta kargu politiko ezberdinekin lan prozesu bat burutu da, "laborategia" izendatua izan dena. Maila tekniko edo politikoan kokatu dezakegun gogoeta eta ikasketa prozesu bat izan da, non parte hartu duten profesionalek zaintza erduz eta lankidetzaren publiko-komunitarioaren inguruan eztabaidatu egin duten.

Konkretuki, bi lan saio burutu egin dira, non udal bakoitzeko bi profesional edo gehiagok parte hartu duten. Esan bezala, lan saio

hauetan ikertaldeak proposatutako gaien inguruan eztabaidatu egin da. Zer da zaintza? Edo, nola garatu elkarlan publiko-komunitarioa? Bezalako galderen inguruan.

Laborategi tekniko hauek, ideia eta ezagutza berria garatzeaz gainera, saretze eta elkar ezagutza lan bat egiteko balio izan dute. Hau da, gai honetan arituak eta interesatuak diren pertsonen arteko eztabaidaren bidez, zaintza ereduak eraldatzeko eta lankidetzaren publiko-komunitarioan sakontzeko oinarriak jarri dira.

> Idei nagusiak

- 1) Hizkuntz komun baten beharra. Zertaz ari gara zaintzaz eta komunitateaz ari garenean? Hurbilpen ezberdinak daude kontzeptu hauetara? Definizio itxi bat lortu baino, uste eta hurbilpen ezberdinak batu ditzazkegu.

Zaintza eta komunitateaz ari garenean, bi kontzeptu zabal eta abstraktuak batzen ari gara. Bakoitza bere aldetik definitzea zaila izateaz gainera, biak batera agertzen direnean, konplexutasuna areagotu egiten da.

Biak kontzeptu zabalak izanda, berauek ulertzeko edota lantzeko oinarriko marko kontzeptual bat beharrezkoa egiten da. Honek

ez du esan nahi biak modu zehatz eta definitiboan definitu behar direnik, baizik eta aurrelanketa bat egin behar dela, modu akritikoan ez erabiltzeko. Ikuspuntu eta kontzeptualizazio ezberdinak egon daitezkeen arren, ideia edota marko komun minimo bat beharrezkoa izango da, zaintza eta komunitatea, banaka edo batera lantzeko.

- 2) Arlo publikotik, Zaintzaren zeharkakotasuna lantzea. Nola egin dezakegu zaintza eginkizun interdepartamentala izan daiten? Udalgintzaren berrantolaketa eman behar da? Zein zentzutan?

Zaintza, egun ikuspuntu asistentzial batetik ulertu egiten da, Gizarte Zerbitzuen programa bat da. Zaintza asistentzialistotik ulertzea kontzeptu zaharkitua da eta honek eramaten du Gizarte Zerbitzuetatik eramatea gaia. Zaintzak baina, prebentiboa izan behar du, ez asistentziala bakarrik. Asistentzia denean erakunde

publikoek hartu behar dute ardura, haiena da egitekoa. Zaintza soilik Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen den politika bat izatetik, politika trasbertsal bat izatera pasatu behar da.

Zaintza kontzeptu berriak planteatzen dituen erronkek Udalen aberasgarriagoa izango zen. Ezin dugu zaintza gain lan bat gisa egituraketa berriak eskatzen dituzte. Banaketa handia dago egun, irudikatu. Nola eman saltoa interdepartamental egituratik, lan egiteko beste modu bat behar da. Departamentu guztiak transdepartamentalera, politika integral eta partekatutara. begirada eta norabide berdinarekin lan eginez gero,

3) Zaintza eta komunitatea agendan sartzeko aukerak. Bizi dugun garaia bereziki interesgarria da zaintza eta komunitatearen inguruan aritzeko. Ze aukera ikusten dituzue gai hauek agenda politikoan sartzeko? Zein zailtasun egon daitezke gai hauek eztabaida politikoaren erdigunera sartzeko?

Unea da zaintza agendan sartzeko. Eragileak, auzo elkarteak komunitatea palanka izan behar dira barneko funtzionamendua zaintzaren garrantziaz ohartu direla dirudi eta une hau baliatu eraldatzeko. Lidergo politikoa gakoa da Udaletxeko agendetan behar da. Parte hartze eredu berria sortu behar dugu. Momentua sartzeko. da gai honeri heltzeko debate publikoan jarri delako. Zaintza,

5.2 AUZO LABORATEGIAK

> Prozesua

Zaintza ekosistema publiko-komunitarioak indartzeko prozesuaren baitan, Donostian lau saio egin ditugu bertako Udala eta Erlauntza proiektua bidelagun hartuta. Batetik Grosen eta bestetik, Bidebieta-Herrera auzoetan egin ditugu auzo laborategiak, zonalde bakoitzena pare bat hausnarketa saio eginez auzoko hainbat eragileren eta herritarren partaidetzarekin.

Zaintza laborategi deritzogun saio hauek hurrengo **helburuak** izan dituzte:

- Auzoan zaintzaren alorrean diren eragileen arteko elkar ezagutza eta errekonozimendua sustatzea
- Zaintzaren inguruan dauden proiektu eta eragileen mapeoa burutzea
- Zaintzaren inguruko hausnarketa partekatua burutzea eta eragile mota bakoitzaren papera zein den definitzea
- Zaintzaren inguruan hausnartzeko abagunea hartzea.

> Idei nagusiak

Saio hauetan honako **emaitzak** lortu genituen:

- Bai Groseko eta baita Bidebieta_Herrerako zaintza ekosistemaren mapeoa egitea. Horretarako zaintzaren alorrean kokatzen diren erakunde eta programa publikoak zerrendatu genituen, bai eta elkarteak, familiak edota herritarrak protagonista diren egitasmoak, zein merkatuaren eskaintzak ere.
- Eragile hauen guztien funtzioak eta erronkak denon artean definitzen saiatu ginen.
- Auzoan zaintzaren alorean dauden erronka nagusien inguruan hausnartu.
- Erronka nagusiei aurre egiteko balizko proiektuak aurre-diseinatu dira.

6. PROIEKTU PILOTUA

Proiektu pilotuaren diseinuari heltzeko hurrengo aurre-baldintzak planteatzen ditugu:

> Erakunde publiko zein komunitatearen inplikazioa izatea

Elkarlan publiko-komunitarioa sustatu nahi bada, ongi definitu behar da bakoitzak proiektuaren bilakaeran izan behar duen papera.

> Zaindutako eta zaintzaile paperak gainditzea

Azterketa burutzeko egindako prozesua erakusten du behar gehiago egon daitezkeela adierazten direnak baino. Aldi berean, denok zaintzak behar ditugula azpimarratu nahi dugu.

> Komunitatea indartzeko baliagarria izatea

Banakako harremanak sustatzeaz gain, izaera komunitarioa sustatuko da. Horretarako auzo eskalako proiektua izatea planteatzen da, hau da, tokian tokikoa.

> Iraunkortasuna bermatzea

Inplementatzen den proiektu pilotuak iraunkortasunerako bokazioa izan beharko du eta partaide desberdinen inplikazioa definitu beharko da etorkizunean funtzionatu eta garatu ahal izateko.

6.1 PLANTEAMENDUA

Elkar-zaintzarako dinamika komunitarioa [Behin behineko planteamendua]

>Zer?

Auzo izaera sustatuz, bakardadean/isolamendua apurtzeko auzo dinamika planteatuko da. Jendartean zentralitatea ez duten kolektiboak hartu nahi ditugu aintzat, hasi adinekoekin, bakarrik bizi direnekin, etorkinak.. Tokian toki baloratuko da.

>Nola?

Auzo erronkak planteatuz, bi pertsona binkulatuko dira (zaintza sareko herritarra eta bakardadean dagoen pertsona baina zaintzaile/zaindua dikotomia apurtzen saiatuz).

Hasiera batean dei telefonikoak planteatuko dira, ahal den heinean harreman hori presentziala izatera bideratuko da. Dei telefoniko horien muina auzo erronkari erantzutea izango da baina pertsonen egoera eta beharrak baloratzeko baliatuko dira ere. Erronka komunitarioari ematen zaizkion erantzunak, publikatuko dira web orri eta sare sozialetan.

Erronkaren amaieran eta ahal den heinean, auzo mailako elkarretaratzea antolatuko da partaideen arteko harremanak sustatzeko.

>Espazio eta erronkaren definizioa eta komunikazioa

Herri bakoitzean auzo edo kale konkretu bat aukeratuko da.
Kale/auzo horri dagokion erronka bat planteatuko da.
Erronka/dinamika iragartzeko kartela diseinatuko da.

>Prozesua eta eragile bakoitzaren papera

Erakunde publikoak

Dinamika/erronka iragarriko dute eta bakardadean/isolamenduan dauden pertsonen detekzioa zein lehen harremana egingo dute.
Dinamika/erronkaren jarraipena egingo dute.
Elkarretaratzea antolatzeko baliabideak jarriko dituzte.

Zaintza sareak

Sareko partaideen artean difusioa egingo dute eta dinamika/erronkan parte hartzeko prest daudenak identifikatuko dituzte.
Aurrerapenen inguruko dibulgazioa egingo dute.

Herritarrak

Kalean/auzoan kartela jarriko dute.
Deiak egingo dituzte eta erronkaren aurrerapenak jasoko dituzte.

>Kontutan hartu beharreko programak eta eragileak

Adinkide programa eta bestelako akonpaimendu programak (Itxaropenaren telefonoa, Nagusilan...)
Auzo elkarteak
Tokian tokiko bestelako eragileak: Torri gukin! Programa...

>Iraunkortasuna bermatzeko zenbait gako

Bakardadean dauden pertsonen detekzio iraunkorra
Udaletxe eta zaintza sareen arteko koordinazioa
Udaletxeek kanpaina/erronken hasierako dinamizazio papera hartzea

6.2 INPLEMENTAZIO SAIAKERA

Proiektu pilotoa hau Oiartzungo Udala zein bertako zaintza sarearekin batera inplementatzeko saiakera burutu da.

Horretarako, diseinua Oiartzungo egoerara egokitzeko ahalegina egin da.

Inplementazio prozesua bertanb ehera gelditu da Zaintza sareko partaideen aldetik erantzun txikia izan delako. Horren aurrean Oiartzungo Udalak erabaki du zaintzen inguruko lanketa sendoagoa planteatzea proiektua abiatzen saiatu baino lehen.

7. JARDUNALDIAK

Bizitzak sostengatzeko elementu nagusia da zaintza, eta beraz, politika publikoen erdigunean egon beharra du. Baina, zaintza erronka kolektibo bat izanik gobernantza eredu publiko-komunitarioak sustatu beharko ziren. Baina nola egin daiteke hori?

Irungo Palmera Montero gunean apirilaren 15ean egindako jardunaldietan Erreterian, Donostian, Oiartzunen eta Tolosan egon diren esperientzien inguruan hausnartzeko abagunea izan genuen, bertako Udalen ordezkartzaren eskutik. Era berean,

Euskal Herrian eta gure mugetatik kanpo dauden zenbait eredu publiko-komunitario ezagutzeko aukera izan genuen.

Zehazki, Getxo Zurekin ekimeneko Naomi Hasson izan genuen eta baita Beterri Buruntzaldea eskualdeko zaintza diagnostikoa egin duen Emagin elkarteko Miren Aranguren ere. Madrid de los Cuidados ekimena gertutik ezagutzeko aukera ere izan genuen, Mónica Díaz Lópezen eskutik.

>Jardunaldiaren helburuak

Jardunaldiaren helburu nagusiak honako hauek izango dira:

- 1) Lan publiko-komunitarioko hainbat esperientzia ezagutzea, bereziki zainketen arlokoak.
- 2) Esperientzia horiei buruzko bizipenak eta ikaskuntzak partekatzea.
- 3) Errealitate konplexuei, hala nola zainketei, erantzuna emateko lankidetzak publiko-komunitarioa indartzeko beharrari balioa ematea.
- 4) Ereku publikoaren eta komunitarioaren arteko harremanen funtsezko elementuetan sakontzea, zaintzak bezalako eremu batean.
- 5) Ekarpak bat egitea zaintzako ekosistema publiko-komunitarioak eraikitzeko.

>Jardunaldiaren antolaketa

Irekiera (10: 00-10: 15)

Hitzaldi gonbidatuak (10: 15-12: 00)

Getxo zurekin

Naomi Hasson

Beterri-Buruntza eskualdeko zainketen diagnostikoa

Miren Aranguren

Madrid Ciudad de los cuidados

Mónica Diaz Lopez

Mahai-ingurua (12: 00-13: 00)

Tolosako, Errenteriako, Donostiako eta Oiartzungo udaletako ordezkari teknikoak eta politikoak

Itxiera (13: 30-13: 35)

> Esperientziak

EMAGIN

Bizitza zaintzeko modu bakarra komunean da. Zaintza eskubidea guztiona izaki, guztiona da zaintzeko ardura. Hortaz, zaintza lanak familiarizatuak, feminizatuak, arrazialituak eta merkantilizatuak izateari utzi behar diote. Ezin ditugu zaintza lanak gizarte sektore zaugarrien gain utzi. Zaintza lanen ardura kolektiboa da, eta bizitza gertatzen den eremu guztiak artikulatzeko gai izan beharko luke zaintza sistema berriak. Norabide horretan, erabakiak hartu

MADRID DE LOS CUIDADOS

Madril Hiriko Udal Gobernuak apustu irmoa egin zuen bizitzaren iraunkortasuna erabaki politikoen erdigunean jartzeko; batetik, pertsonen eguneroko bizitza azterketa-elementu gisa kokatuz, eta, bestetik, lana eta zainketen ikuspegia biztanleriaren bizi-baldintzen alderdi erabakigarri gisa ipiniz.

Dolor Comasek (2016) emandako zaintzaren definiziotik abiatzen da egitasmoa: "Bizitzaren, osasunaren eta pertsonen ongizatearen eguneroko kudeaketarekin eta mantentzearekin lotutako jarduerak". Horrela, zaintzak bizitzaren jasangarritasunerako eta

behar dira eta politika publikoak diseinatu subjektu instituzional, politiko, sozial eta ekonomikoekin. Ezinbestean demokratizazio prozesuan jarri behar ditugu zaintza lanetan dauden harreman sozial, ekonomiko zein politikoak, eta komunitatea, eremu publikoa zein kooperatiboa artikulatuko duen sistema berrian pentsatzen hasi.

erreproduzio sozialerako funtsezko elementuak ahalbidetzen dituzten premiarik oinarrizkoenak direla uste da.

Udal Administrazioan zaintza-politika honako esparru hauetan egituratzen da:

- Espazio publikoa eta denon bizitza zaintzan duen hiria
- Kontu handiz administratzen duen hiria: Eguneroko bizitzarekiko sentikorra den hiria (ondoezak/Ongizateak)
- Zaintzak ekoizpen-sisteman sartzen dituen hiria

GETXO ZUREKIN

Gizarteak eman diguna itzultzeko premisaren pean sortu da Doble Sonrisa Fundazioa, eta txiki-txikitik ikasi genuena gogorarazi nahi du, hau da, familiaren balioak, babesa, maitasuna, kontsolamendua... Bizitzaren amaieran diren pertsoneri arreta emateko balio garrantzitsuak dira horiek, bai eta egoera ahulean dauden hurrei laguntzeko ere.

Bizitzaren amaieran dauden pertsoneri eta egoera horretan dagoen kide bat duten familiei arreta ematea du helburu fundazioak, betiere profesionaltasun osoz eta gizartea sentzibilizatuz.

8. EMAITZAK

Memoria honetaz gain, rozesuaren emaitzak hurrengoak dira:

- > Azterketa eta ondorioak
- > Zaintza ekosistema publiko-komunitarioak indartzeko gakoak esku-orria
- > Zaintza sareen fenomenoaren azterketa. Ingurune aldizkarira bidalitako artikulua akademikoa.

